


Astekaria

# BARRREN

elgoi



## EHUN KILO: lehen diska kalean

**IRAKASLE**  
**ELKARTEA**

# ZEZENBIDE



auto-eskola

San Frantzisko 43,  
☎ 74 27 20

## 3 LAU HANKATAN

"...are gogorragoa izango da elkarren errespetuan eta elkarriketan oinarritzen den kultura bat sortzea." **Joxin Arregi**

## 6 ERREPORTAIA: IKASBAT: LANERAKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA

Ikasbat-en helburua, alor profesional jakin batean hezitzea eta gazteak izan ditzakeen gabeziak gainditzen saiatzea litzateke.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ARDOA ALA URA?

**Mari Itziar Azkarate:** "Ura da edaririk zahar eta osasuntsuena."

**Pello Aizpurua:** "Ardoa gauza ona da, baina bere neurrian."

## 12 BERBETAN: Arnaldo Patterson

SALSAK ELGOIBARREN SORTU DUEN SALTSA!

## 14 KIROLA

GAIA: FUTBITO TXAPELKETA.

ELKARRIZKETA: **Angel Garate**

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

GURUTZE GORRIA: BORONDATEZKO LANEAN EREDU

## 17 KULTURA

EHUN KILOREN EULI ARTEKO DOINUAK

TXANDAK

### FARMAZIAK:

11, larunbata: YUDEGO

12, igandea: YUDEGO

13, astelehena: ETXEBERRIA

14, asteartea: ETXEBERRIA

15, asteazkena: ETXEBERRIA

16, osteguna: ETXEBERRIA

17, ostirala: ETXEBERRIA

### OKINDEGIAK:

12, igandea: FOTERO



## PREMAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak.....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua	7410 08
Odol Emaileen elkarte.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua...	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) .	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARAK



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Argitaratzailea**

Elgoibarko Izarra

**Laguntzailea**

Elgoibarko Udala

**Zuzendaria**

Alberto Agirreazaldeg

**Hizkuntza Arduraduna**

Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**

Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**

Maite Rementeria

**Publizitatea**

Nekane Etxaniz

**Administrazioa**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak**

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansuategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Agur Miren Barandiaran,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, Nerea Lodoso,

German Meabebasterretxea,

Jasone Osoro, Diana Perez de

Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor

Zabaleta

**Banaketa arduradunak**

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

**Inprimategia**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta

iritzien erantzunkizunik.

**LAU HANKATAN**



Joxin Arregi

# Bakearen zerbitzura

**O**rain dela egun gutxi esku artean egunkari bat nuelarik, notizia honekin egin nuen topo:


“Atzo arratsaldean Donostiako Gotzaiak bere pastoral berria azaldu zuen. Bakearen zerbitzuan titulatu duen pastoral horretan, biolentziaren kultura gainditu nahi duen pertsona betekin aurkitzen gara. Bai pastoralak duen mamian baita eman zuen prentsaurrekoan ere bakearen kultura martxan jarri nahi duen norbait topatu dugu”. Eta honela jarraitzen zuen notiziak: “Atzo berriz gure euskal politiko eta agintarien hitzetan biolentziaren kulturaren espresio bikainenak jaso genituen.”

Urtearen lehen egunean munduko herri guztiek “bake” hitza aipatuko dute ohiturak agintzen duen bezala; baina gure herrian oraindik ohiturak errealitatea denari buruzko

adostasunik ez dugu lortu. Iritziak iritzi, besteei irabazi arte, hemen ez dagoela bakerik entzuten diegu batzuei eta besteei. Gure artean dabilen hizkuntza, enfrontamentu baten hizkuntza da, aspaldian gure artean dagoena eta egunetik egunera indartsuago egiten ari dena.

Aspalditik gure artean bizi dugun biolentziaren kultura honek pertsonen izakera eta eguneroko bizitza enfrontamentu horren kolorearekin margotu ditu. Biolentziaren kultura hori bizitzaren arlo askotara zabaldu dugu. Arazo politiko gogor bat dugu konpontzeke, baina are gogorragoa izango da elkarren errespetuan eta elkarrizketan oinarritzen den kultura bat sortzea.

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*




**Zain ditzagun gure mendiak**

Mendira joaten bazara zuhaitz eta belarretan latak, botilak eta beste gauza asko ikusiko dituzu.

Honek ez du esan nahi zuk garbitu behar dituzunik zabor guztiak, baizik eta bakoitzak berea. Bakoitzak berea jasoko balu mendia askoz garbiagoa egongo litzateke. Gure ustez mendiak zaindu egin behar dira.

**Uxue Alberdi eta Maria Escobedo**



**OLENTZERORI ESKUTITZAK:**

Gabon atarian gaude eta urtero bezala Olentzerok prest dauzka zakuak helduko zaizkion eskutitzak jasotzeko. BARRENEk Olentzeroren postari izan nahi du. Atal honetan hilaren 24ra bitartean jasotzen ditugun eskutitzak argitaratuko ditugu. Hartu papera eta boligrafoa eta idatzi Olentzerori.

**GABONAK BERTSOTAN 93**

**Abenduaren 17a, ostirala**

**II. NAGUSIEN ETXEGIÑA BERTSO PAPER LEHIAKETA**

**EGITASMOA:**

- \* Lagunarteko afaria
- \* Sari banaketa ekitaldia
- \* Omenaldia: Anjel Ugarteburu, Daniel Legorburu, Antonio Irigoien, Xabier Arriola eta Felix Arrizabalaga.

**TOKIA:** Aubixa aterpetxean

**PREZIOA:** 1.500 pta.

Izena emateko azken eguna: abenduaren 16a.

**ANTOLATZAILEA:**  
ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



**Abenduaren 19a, igandea**

**BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO FINALERAKO AUTOBUSA**

**PREZIOA:**

2.800 pta (sarrera + autobusa)

(Autobus bakarria irtengo da)

Izena emateko azken eguna: abenduaren 17a.

**LAGUNTZAILEA:**  
ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA





AZKUE

**A**ste honetako erretratu ere **Begoña Mugerzak** lagatakoa da. Potoloen eta mehen taldeak ikusi ondoren, arbitro eta marrazainak ezagutzea baino ez zitzaigun falta.

Ikusten duzun bezala orduko denboretan ez ziren ibiltzen gaurkoen antzerako ipuinekin; futbol taldeek, batak besteei "banderinak" erregalatu beharrean, gauza "gozoagoak" oparitzen zizkieten elkarri. Meheek potoloei, ardoz beteriko zahagia barruak berotzeko eta botikina, ezerk kalte eginez gero, sendatzeko. Potoloek mehei, berriz, bakailo

gazia "piura" ziztrin horiek pixka bat mejoratzeko.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen duten argazkian azaltzen den paregabeko kuadroa:

Ezkerretik eskumara:

**Jose M. Monje** (meheen kapitaina), **Victor Ansola** (liniearra), **Victor Alberdi "Patxillo"** (partiduko delegaua), **Jose M. Rivero** (arbitro jauna), **Lucas Gonzalez** (beste linierra) eta **Julio Mugerza** (potoloen kapitaina).

Mila esker Begoñari horrelako hiru "perla" lagatzeagatik.

foto | azkue

ANIVERSARIO  
**20**  
URTEURRENA  
1973 - 1993

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

**MEKANOSA**

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

# IKASBAT: lanerako oinarrizko prestakuntza

**Ikasbat elkartea duela bost urte sortu zen DEBEGESAren ekimenez, 16-19 urte bitarteko gazte eskolagabetuak profesionalki heitzeko asmoz. Ikasbat-ek martxan dauzkan zazpi lantegiak, heziketa arautuan arrakastarik izan ez duten gazteentzako irtenbide dira. Sukaldaritza eta bezeroentzako arreta lantegiak Elgoibarko IMHn daude eta gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu.**



↳ Hosteleritza ikasten duten gehienek, Euskal Herritik kanpo topatzen dute lana.

**Ikasbat-ek** lan mundurako sarrera programa burutzea du helburu eta datorren urtetik aurrera, "garantia sozialeko modulu" izena izango du. Helburua, alor profesional jakin batean hezitzea eta gazteak izan ditzakeen hezkuntza mailako gabeziak gainditzeko saiatzeko litzateke. Hezkuntza orokorra eta hezkuntza profesionala irakasten dira. Horregatik,

klase praktikoez aparte, klase teorikoak ere izaten dituzte. Ikasle asko, matematika eta horrelako gaietatik ihesi etortzen bada ere Ikasbat-en oinarrizko jakintza batzuek jaso behar izaten dituzte.

Lan mundurako sarrera programaz gain, Ikasbat-ek profesionalki heitzeko ikastaroak antolatzen ditu 19 urtetik gorakoentzat.

**Emakumezkoek, hosteleritzan jarduten dute batez ere, beste lanbideak gizonezkoen lanbide baitira oraindik ere.**

## Udalak ezinbesteko

Finantzabide nagusiak Jaurilaritzako Hezkuntza Saila eta Deba Beheko sei Udalak dira. Sei Udalek esfortzu handia egiten dutela esan digu Ikasbat-eko zuzendaria den Iñaki Zubiagak. Aurten 19 milioi pezetako laguntza jaso du Ikasbat-ek sei Udalen eskutik. Edozein arazo sortuz gero ere, Udalak beti

**BOUTIQUE DEL PAN**  
Enpanada Baserriko ogia  
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

**ZOBEL** ZB  
KORTSETERIA, OSAGARRIAK  
ETA BARRUKO ARROPA.  
San Roke 13 behe. Tel: 74 34 01


*imanole*  
**GOZOTEGIA**  
San Frantzisko 44, 74 41 37

**rambarri**  
**ASEGURUAK**  
San Bartolome 15  
Tel. 74 3037

laguntzeko prest daudela agertu digu Iñakik.

Gaurregun, zazpi lantegi daude martxan. Lantegi bakoitzean, urtebeteko saioa egiten da eta oraintxe, abenduan, saio bat bukatuko da eta berria, urritik hasita dago. Bost lantegi Plaentxin daude: igeltsaritza, zurgintza, iturgintza, obren gestioa eta pintura lantegiak. Beste biek, bezeroei arreta eta sukaldaritza lantegiek IMHn dute egoitza. Bezeroentzako arreta eta sukaldaritza ikastarorik arrakastatsuenak izan dira. Klaseak IMHko sukaldean ematen dituzte. Egunero, IMHko pertsonalaren bazkaria prestatzen dute eta barra atzeko lanak egiten dituzte. Emakumezkoek, hosteleritzan jarduten dute, batez ere, beste lanbideak gizonetzkoen lanbide baitira oraindik ere gaur egungo gizartearentzat. Kopuruz arrakastatsuenak izateaz gain, lan munduari begira hosteleritzako ikasleak dira lana lehenago bilatzen dutenak. Iñakik dioenez, hosteleritzan lana topatzea ez da zaila, "arazoa Euskal Herritik kanpora joan behar dela da".

Emakumezkoari begira, Ikasbat-ek ez du lortu



Barra ostean, hosteleritza lantegiko ikasleak Iñaki Zubiaga zuzendariarekin.

oraindik eskaintza egoki bat ematea. Hori dela eta, datorren urterako, iturgintza lantegiaren ordez lorazaintza lantegia zabalduko dute. Klaseetarako IMH aldameneko ALYCO enpresak lagatako lur saila erabiliko da. IMHko baraztetan ere praktikak egin ahal izango dituzte.


#### Frakasu handia

Orain momentuan 80-90 ikasle inguru besterik ez daude zazpi lantegietan. Iñaki Zubiagak esan digunez, batzuek dagoeneko aurkitu dute lana eta, beraz, alde egin dute. Baina alde

egin dutenetatik, gehienek, lagatzea erabaki dutelako da. Ikasturte berriko lantegietan 130 ikasle hasi dira baina bukatu, ez dute guztiek bukatuko. Frakasu indizea, oso handia omen da.

Ikasbat-eko lantegiren batean apuntatu nahi izanez gero, norberaren herriko Udaletxean izena eman daiteke. Matrikulazioa doanekoa da eta ikastaroaren iraupena urritik ekainera bitartekoa. Bukieran, titulu bat ematen zaie, lana topatzeko orduan, ikastaroa egin duten agiria izan dezaten.

**Ikasbat-ek martxan dauzkan zazpi lantegietako ikasle kopurua asko murrizten da ikasturte bukaerarako.**



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak  
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89

**Iraegui**  
**ERROTULAZIOA**  
☎ 74 39 52  
San Antolin 74 37 06

**MALAPE**

# Ardoa ala ura?

**B**AT. - Heldu gara errekatxora txo! Hartuko diagu azkenean tragoxka bat eh?!


- Hi tabernari, hiru txikito!

- Dos claros y un tinto!

Makina bat horrelako entzun ditugu bat, jainko arraro batek asmatu zuenetik. Eta bai asmatu ere, ez bonba, ez txerto... ardoa; zorion eta zoritxarreko ardoa; poztasun eta delirumaren ardoa.

**BI.** - Atzo bertan bi lagunekin hizketan egon nintzen Elgoibar-ko larunbatetaz; oso nagusia, gaisotasunak eskuak jota bata, beste, berriz, gaztea, begietan ispilu baten dirdira zuena. Biak gauza bera esan zidaten: "Ardoa gauza ona da, baina bere neurrian". Ondoren biek edaten jarraitu zuten.

**HIRU.** - Entzun al duk inoiz ardoaren



kultura dagoenik?

Hobe esanda; kultura bakoitzak bere ardoa egiten duenik?, ala sagardoa?, ala garagardoa?

**LAU.** - Kaixo, begira, inkesta bat egiten ari gara eta, erantzungo al zenioke galdera bati... bai, begira; nola ezagutu zenuen zuk zeure bikotea?

- Ba..., jaiak ziren Zizurkilen eta... bada-kizu...

**PLOST.** - Hi, ireki zak ardo botila hori, bestela ez diagu hau inoiz bukatuko eta!

- Badoa hi, badoa, kortxoa ateratzeko ginbaleta topatzen bajuat behintzat!

**Pello Aizpurua**



**U**ra da edaririk zahar eta osasuntsuena.

Horregatik, gero eta gehiago dira berau kontsumitzen dutenak bere ondorio positibo bukaezinei esker:

- Edan eta edan arren ez du batere gizentzen.

- Edari alkoholik baxenak ez den parranda baten ondoren ura da gorputzak eskatzen duen lehen gauza. Gauean zehar ura edaten baduzu alkoholik edariak edan ordez, hurrengo egunean erresakarrik gabe esnatzen zara eta egun osoa nahi duzuna egiteko aprobe-txa dezakezu.

- Nahi adina edan dezakezu eta ez zara kezkatzen kotxea gidatu beharra baduzu.

Ura, alkoholik gabeko beste hainbat edari-

**Ura bizitzaren oinarria da eta denok dakigun bezala mila modutan erabili daiteke. Ni hemen edari alkoholikoen alternatiba gisa defenditzera noa.**

ren artean, Euskal Herrian horren sartua dagoen poteatzeko ohi-turaren aurrean alternatiba bat da. Hala ere, badu desabantailik: prezioa hain zuzen ere, ardoa, zurittoa, e.a... baino garestiago baita.

Nere ustez, eta batez ere gazteei begira, uraren kontsumoa bultzatu beharko litzateke poteoan. Horretarako prezioa eta tamaina jetsi beharko litzateke, hau da, zurittoa eta abar... bezala kantitate txikiagotan zerbituz.

Ura edaririk osasuntsuena dela uste dudaren, ez nuke beste edari batzuren kontsumoa baztertu nahi, beti ere modu moderatu eta konszientean egiten den bitartean.

**Itziar Azkarate**  
(Erredakzioan itzulia)

*Eskela, eskertza eta urteurrenentzako espazioa daukazu BARRENen.*

*Deitu asteazkenak baino lehen 74 41 12 telefonora.*




# Ardoa ala ura?



**Paco Linares**

25 urte, kupoi saltzailea

Ardoa. Ura baino gehiago bai. Urak ez dauka zaporerik. Jatorduak ardoarekin egiten ditut baina poteoa, berriz, ez.



**Nati Garcia**

18 urte, ikaslea


Ura. Poteoan ardorik ez, eta jatorduetan ere ez. Ardoak gaizki egiten dit eta horregatik ura edaten dut.



**Karmele Atorrasagasti**

38 urte, dendaria

Bazkaltzeko, batzutan ura eta bestetan ardua, baina gehienetan ardo piska bat. Ura bazkal aurretik edaten dot litro bat edo.



**J. Inazio Lopez de Gauna**

59 urte, txoferra


Biak. Ardoa gehiago gustatzen zait. Poteoa gutxi egiten dut eta astean zehar bazkalorduetan ardoa edaten dut. Bietatik, hala ere.



**Lucia Zabala**

68 urte, etxeakoandrea

Ardua gustatzen jat bazkaixan. Ura ere txorrokoa edaten dot, asko. Bazkaixa berriz, arduakin eixia gustatzen jat.



**Pedro Ezkurra**

71 urte, jubilatua

Bixak edaten ditut. Depende ze janekin, baina guk oraindik ardua, baso erdi bat edo. Ura ere edan biherda, asko, ardua baino gehixao.



*Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

**OSASUNDEGIA**

1- Alergologia	9- Ortodontzia
2- Kardiologia	10- Otorrinolaringologia
3- Zirugia	11- Pediatria
4- Zirugia maxilo faziala	12- Sikiatria
5- Dermatologia	13- Radiologia
6- Ginekologia	14- Traumatologia
7- Laborategia	15- Urologia
8- Barne medizina	

**CHINA TOWN**

Txinatar jatetxea

- ▶ 2, 3, 4, 5, 6, 8, pertsonentzako menuak
- ▶ Ezkontzak, Despedidak...
- ▶ Elxera eramateko janaria

**Eguneko Menua:**  
**900 pta**

Iifar-Kale, 3 ☎ 70 21 55

**EIBAR**

## Logotipo lehiaketa

Elgoibarko Emakume Gazteen Taldeak logotipo lehiaketa antolatatu du. Lanek A-4 tamaina izan beharko dute. Sobre itxi batean egilearen izen-abizenak eta helbidea jarri beharko dira eta kartazalaren kanpoko aldean, berriz, gaitzizena. Lanak 70 postakutxatilara bidali urtarrilaren 16a baino lehen.

## Jubilatuen astea

Elgoibarko Zaharren Biltokiak "Jubilatuen astea" ospatuko du hilaren 13tik hilaren 17ra bitartean. Astelehenean, hilak 13, Enrike Larrañagak zorientasunari buruzko hitzaldia emango du arratsaldeko 7etan Zaharren Biltokian. Ondoren zozketa berezia egingo da. Asteartean, hilak 14, Meza nagusia ospatuko da eguerdiko ordubatean san Bartolome parrokian. Ordubietan anaiarteko bazkaria eta 80 urtetik gorakoei eta urrezko eztaiak egiten dituztenei omenaldia egingo zaie Zaharren Biltokian. Asteazkenean, hilak 15, Gabonetako 100 otarren zozketatuko dira eta ostegunean, hilak 16, txokolatada izango da Zaharren Biltokian arratsaldeko 6etatik aurrera Itxaropena abesbatzak alaituta. Ostiralerako, hilak 17, dantzaldia antolatu dute guass dantzalekuan.

## LHiko sei ikasle ohik Frantzian jarraituko dituzte ikasketak



**Lanbide** Heziketako Institutuko sei ikasle ohik Bordeleko Philladelphie de Gerde lizeoan administraritza eta frantses ikasketak burutuko dituzte datorren urtarriletik ekainera bitartean. Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutuak eta Pessac-eko lizeoak elkarlanean dihardute duela bi urtetik. Elkarlan horretatik atzerrian ikasturte bat egiteko proiektua sortu zen. Akitaniako Hezkuntzak proiektua onartu zuen eta emaitzak onak badira, beste hiru urtez luzatuko du egitasmoa.

Frantziara joango diren ikasleak Elena Gonzalez, Nuria Guerola, Montse Santamarta, Leire Aranbarri, Guadalupe Alvarez eta Dori Gomez dira. Joan aurretik, hil honetan zehar frantseseko klaseak hartuko dituzte Institutuan eta Akitaniako ikasleak hona etorriko dira administraritzako gaiak gaztelaniaz jorratzera. Ikasturtean zehar praktikak egiteko aukera izango dute. Kurtso bukeran Frantziako Hezkuntza sailak eta bertako enpresek sinatutako agiria jasoko dute.

**BATZOKIA**  
Jatetxea-Taberna

P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

**UDA BERRI**  
ELGOIBAR

**HERRI-GAİN**  
**ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

# Soziolinguistika ikastaroak eman du berea



**Elgoibarko** Izarra Elkartekoek prentsa ohar bat bidali digute bukatu berri duten ikastaroari buruzko balorazioa eginez.

Zenbakietan sartu aurretik "oso balorazio positiboa egin beharrea gaude, jendearen jarrera benetan txalogarria izan baita. Gainera, badirudi jendeak pozik bukatu duela eta datorren urtean sakontzeko gogoarekin gelditu dela". Kopuru batzuk aipatzekotan esan ikastaroan, batz bestea, 54 lagun egon

direla saio bakoitzean. Bost saioetara azaldu direnak 25 lagun izan direla, laura joan direnak beste 16 izan diren bitartean.

Elkartekoek esan digutenez "hemen dago Elgoibarko Izarraren harrobia. Badirudi jendea konforme dagoela ikastaroan azaldutako eduki eta ideiekin eta norberak bere aportazioa eskaintzeko lehen urratsa emanda dagoela". Saiokideek jatordu goxo batekin emango diote bukaera lehen esperientzia honi.

# Obren zuzendaritzak eztabaida sortu du HB eta PNVren artean

HBko zinegotziek kontratazio eran legez kanpoko ekintzak burutu izatea leporatzen diote PNVri. Haien ustez, Gobernu Batzordeak, PNV eta PSOE alderdiez osatutakoak, Udaleko aparejadorea den Pedro Mata jauna lanorduetatik kanpo kontratu du zenbait obren zuzendaritzaz arduratzeko: Kultur Etxeko obrak, San Migeleko frontoiaren estaltzea eta Herriko Antzokiko obrak, besteak beste. HBko zinegotzien arabera, "Udaleko idazkariak funtzionario bat lanorduetatik kanpo kontratatzea ilegala zela jakinarazi zion Gobernu Batzordeari baina, kasurik egin, gabe aurrera egin zuten adjudikazioekin".

PNVk, bere aldetik, adjudikazio guztiak hirigintza batzordean egiten direla adierazi du eta zenbait kasutan, San Migeleko frontoiaren estaltzesaterako, HBren aldeko botuarekin. Jeltzaleen hitzetan "HBko dioena guztiz faltsua da, Udalak ez baitio aparejadoreari obra horien zuzendaritzagatik ezer ere ez ordaindu. Aparejadoreak -dio PNVren idatziak- ez dauka dedikazio eksklusiborik eta gure helburua obren kontrol egokia egitea eta zuzendaritza gastuak ahalik eta txikiak izatea izan da.

## ATLAS eta SAHARA (Maroko)

### XAUEN BIDAIAK



\* **TALDE TXIKIAK:** Autokarabanaz 17 per. / furgonetaz 8 per.

\* Joan etorria literan gaez.

\* **ATLASEKO EDURRETIK BASAMORTURA:**

Toub-Kal mendia (4.165 m.) + Erg Chebi (basamortua)

\* **TREKKING ATLASEAN:**

Bere-bereen herri txikietatik oinez beraien etxeetan bizitzaren.

\* **MENDIKO BIZIKLETAZ:**

Erg Chebi (basamortua) + M'goun bailara (Atlas)

\* Bidean Asilah (kosta) Chechauen (rif) eta Marrakechen geldituko gara.

\* **IRTEERAK** 93-12-26tik 94-1- 9ra .....75.000 pta.

94- 1-14tik 94-1-30era.....79.000 pta.

(943) 12 71 60 informazioa eta erreserbak

I  
L  
E  
A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A

**FADEK**  
SOLARIUM

*Erosario Naka, 35 behe*  
74 26 92 Elgoibar

## PUB



elgoibar

## Fotero

**OKINDEGIÀ**  
**OPILEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

# Salsak Elgoibarren sortu duen saltsa!

Fenomenu berezi xamarra eman da azken asteotan Elgoibarren. Polikiroldegiak ikastaro bat antolatu zuen eta hirurogeita hamasei pertsona bildu ziren, sekula baino jende gehiago. Salsa, Boleroa, Cha cha cha eta

antzeko dantzak irakatsi ditu Arnaldo Pattersonek, Cubako Dantza kontenporaneoko Taldearen sortzaile, bakarlari eta maisu izan denak. Hegoamerikako dantzari hau Ohiartzunen bizi da gaur egun.

- Nola bilakatu zinen Kubako Dantza kontenporaneoko Taldeko maisu?

- Dantzaren Iraultza eman zenean hogeit bat lagun elkartu eta taldea sortu genuen. Zuzendaria Ramiro Guerra zen. Hasi-rako urteetan egin genuena Cubako gure kultura berreskuratzea izan zen, orduarte nahasi xamarra zegoena. Zuzendariak iritzi kontrajarririk zituen Kultur Ministeritzarekin taldea utzi zuen. Ondorioz, lan banaketa bat egin zen eta ni irakasle nagusi izendatu ninduten.


1976an "Elaboración técnica" lana estreinatu genuen, honek markatuko zuelarik aurrerantzean taldearen teknika izango zena, Cubako dantza modernoa, hain zuzen.

- Zer eragin dauka klimak guzti honetan?

- Eguzkia bizitza da eta guk, Cuban, nahi beste daukagu. Arropa arinagoak erabiltzen ditugu zuek hemen, European, baino. Arintasun horrek askatasuna ematen du, sentimenduak edonon eta edonola adierazteko askatasuna. European, arropa barruan itxita bizi zarete eta horrek izaeran badu eragirik.

- Dantza teknika al da?

- Dantza misterio bat da, teknika osagarri bat. Teknika mendebaldeko gizonak asmatu zuen. Duela mende



**"Salsa erritmo, korrante eta eragin ezberdinez osaturiko paella bat da."**

asko gizon eta emakumeek dantza egiten zuten, Afrikan zein Indian, eta ez zegoen teknirik, inguruko, barruko sentimenduak adierazteko beharra baizik. Guk, mendebaldean, hainbeste gauza daukagu askotan ez dakigula zer garen, ez nondik gatozen ez eta nora goazen ere. Herri "primitibok", ordea, lege eta ohitura mugatuak dituzte, bizi diren inguruaren arabera eginak eta nahikoa dute horiekin bizitzeko. Herri horiek inguru mugatu horretan bizi dira, hor dira hiltzen. Lurraren zati bat dira.

- Zer da zailagoa, dantza

irakastea ala ikastea?

- Irakastea oso zaila da. Gorputza hezitzeaz, eratzetz gain, izpiritua ere eratu behar baita. Dantzatzea behar bat da, sentimentu bat. Gaur egun ikusten ditudan dantzari askok ariketa teknikoak egiten dituzte, besterik ez. Mugitu egiten dira, ez dute dantzatzen. Dantza hori baino gauza naturalagoa da, elementu teknikoek laguntzen duten arren.

- Zerk egiten du dantzari ona?

- Ez da dantzaria bakarrik, artista da, bere osotasunean. Garrantzitsuen

komunikazioa da. Artea esan nahi duzuna komunikatzea da. Gainontzeko guttia forma da, eta edukiak arautzen du forma. Edukia ona bada, komunikazioa ere ona izango da.

- Zer dela eta zaude Euskal Herrian?

- Nire familia hemen dago, emaztea, euskalduna gainera, eta bi semeak. Eurak dira garrantzitsuenak niretzat. Dantza maite dudana arren, familia ere gehiago. Atzerritar bezala ez da erraza toki bat egitea hemen. Badut curriculum interesgarri bat baina... Bizi beharra dago eta lan egin beharra. Salsa modan dago eta niri komunikatzeko eta bizitzeko aukera ematen dit. Beharbada kontratu bat izango banu talde bat osatu eta koreografiak egiten egongo nintzateke baina... Hemen, Euskal Herrian, atek ireki dizkidate eta oso gustura nago.


- Zer moduz Elgoibarren?

- Primeran, fenomeno, benetan. Jendea asko saiatu da, barre egin dugu, jolastu, dantzaren bitartez disfrutatzen ikasi dugu. Hiru astetan ezin da ikastaro tekniko metodologiko bat eman. Nire helburua jendearekin komunikatu eta elkarrekin ondo pasatzea zen, eta lortu dudala esan dezaket.

**Jasone Osoro**

## Manuel Soto

*Egunkari saltzailea*



- Noiz saltzen dira egunkari gehien?
- Asteburuetan eta jai egunetan.
- Kazetaria izatea gustatuko litzaizuke? - Bai, noski.
- "Krisi" hitza denon ahotan dagoenetik, egunkari salmenta gutxitu egin al da? - Bai, nahikoa. Bestalde, guk igartzen dugunaren arrazoa da, gaur egun, edonork saltzen dituela bere negozioan.
- Zenbat urte daramazu lan honetan? - Zazpi. Langabezian gelditu nintzenetik.
- Zein ordutan jaikitzen zara? - Goizeko seietan eta hemen egoten naiz eguerdiko 1,15era arte.
- Prentsa asko irakurtzen dozu? - Ia gehienak goitik begiratu eta irakurri ere, asko. Segun eta lana nola dagoen.
- Gehien saltzen direnak, betikoak dira? - Bai. "El Diario Vaco" lehenengo, gero "Egin", "Correo" eta beste guztiak parekaturik daude.
- Kiosko batean egotea gustatuko al litzaizuke? - Bai horixe. Udan ondo, baina neguan, batzuetan gaizki pasatzen dut hemen.
- Greba orokorra beharrezkoa dela uste duzu? - Bai.
- Jatorduak ardoarekin, urarekin ala ...? - Urarekin soilik.
- Gainditu gabe gelditu zaizun asignatura, euskara akaso?
- Bai, irakurtzea gutxi gora behera badakit, hitzegiten bezala. Ezin dut klaseetara apuntatu diru faltagatik.
- Azkenengo aldiz, nora joan zinen oportetara? - Jaioterrira. Ledesma da eta Salamancan dago.
- Zinea gustoko al zaizu? - Bai, baina ez naiz joaten lanagatik. Gaueetan oso goiz joaten naiz ohera.
- Noiz gustatuko litzaizuke jubilatzea? - Ba, orain jubilatuta behar naiz. Baina beldur naiz zer gertatuko den gero...
- Zer eskatuko zenioke urte berriari? - Bakea eta segurtasun ekonomiko batekin bizitzea.
- "Montecristo" zigarro kutxa oparitutako banizu? - Utzi egin diot bizio horri eta pozik nago orain.

Miryam Aldazabal

## BERTSOTAN

### TXAPELKETA NAGUSIA

**Doinua:** Antton eta Maria

Gipuzkoatik Euzkitze  
Lizaso ta Egaña,  
Jokin nahiz Peña ere  
beste hirurak haina;  
Bizkaitik Jon Enbeita  
bakarrak ez baina,  
Haritz ta Iturriaga  
bikote bikaina,  
zortzitik edozeinek  
jo dezake gaina. (Bis)

Txapelketak izan du  
hainbat gorabehera,  
azkenean heldu da  
bere amaiera.  
Elgoibarko Izarrak  
jartzen du aukera:  
autobusean denok  
"Anoeta" aldera,  
hilak hemeretzi  
goazen finalera. (Bis)

**Bertso Eskola**

*Aranburu*



*Bitxidenda*

San Frantzisko 26. ☎ 74 25 35

### Gabonetako eskaintza berezia


**Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!**

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.  
Zozketa 1994ko urtarrilaren 5an izango da dendan.

*Zure zai  
gaude!*



Angel Garate:



Quiliching the forest

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 3 - Gernika 1  
 Elgoibar 4- Mutriku 2 (kadeteak)  
 Segura 1 - Elgoibar 2 (2. errejionala)  
 S. Tomas Lizeoa 6 - Elgoibar 2  
 (jubenilak)  
 Eibar 3 - Elgoibar 1 (infantilak)  
 Aloñamendi 3 - Elgoibar 6 (neskak)  
 Elgoibar 1 - Antoniano 1 (neskak)  
 Haundi 1 - Mungia 0

### Areto futbola

Elgoibar A. F. 2 - Moulinex 1  
 (1. maila)  
 Elgoibar A.F. 2 - T. Txapeldun 3  
 (2. maila)

## DATOZEN PARTIDUAK

### Futbola Mintxetan

#### LARUNBATA 11

12,00: Elgoibar - Lasalle (Infantilak)  
 16,00: Elgoibar - Hamaika bat (Jubenilak)  
 18,00: Urki - Lagun Onak (2. errejionala)

#### IGANDEA 12

10,00: Eibar Urko - San Juan (Jubenilak)  
 12,00: Elgoibar - Zumaiako (Neskak)

### Eskubaloia Kiroldegian

#### OSTIRALA 10

21,00: Elgoibar - Urnieta (Neskak)

#### LARUNBATA 11

16,00: Elgoibar - Tolosa (Jubenilak)  
 17,30: Elgoibar - Bergara (Kadeteak)  
 19,00: Elgoibar - Zarautz (Neskak)

## "Nire asmoa kirol zaletasuna piztea da"

- Lehen futbolari. Orain entrenatzaile. Non gusturago?

- Gustura bietan. Futboleant, atezain bezala garai ona eduki nuen: Sansen, Salamancan, Manchegon, Alcoyanon, Almerian eta Eibarren. Orain dela bi urte Elgoibarko atezaina entrenatzen ibili nintzen eta orain 8-9 urteko mutikoekin nabil.

- Zenbat talde entrenatzen dituzu? - OHoko 3. mailako bi talde, benjaminak, 8 eta 9 urtekoak. Orain futbolarekin dabilta, urtarrean saskibaloiarekin hasiko dira eta gero eskubaloiarekin.

- Nola doaz taldeak eskolarteko jokuetan? -Oso ondo. Egunero gauza berriak ikasten dituztela ikusten dut eta horrek aurrera jarraitzera bultzatzen nau. Talde majoa daukat, 20 gutzira. Aurten lehen urtea da eta asmoa kirol zaletasuna piztea da.

- Zein da entrenatzailearen lana? -Adin honetan oinarriko gauzak irakatsi behar zaizkie eta kirolarekiko maitasuna piztu. Orain futbolarekin ari gara, eta baloia pasatu, ikutu, geratu eta horrelakoak irakasten dizkiet.

- Hiru kiroletatik zein duzu gustukoaren irakastea? -Beharbada futbola, gehien ezagutzen dudana delako. Dena den, eskubaloian asko dakien jendea dagoela ikusi dut. C.D. Elgoibar-koak hor daude, eta asko dakite-

la ikusi dut. Jende ona datorrela uste dut. Saskibaloian, ordea, ez dago jenderik eta pena bat da, baina denon artean mutikoei irakasten saiatzen gara.

-Entrenamenduez gain, beste ekintza batzuk ere egiten dituzue. -Bai, gurasoek ere parte hartzen dute eta denon artean mutikoak motibatzen saiatzen gara. Behin, Ongarri Zine kluberrako sarrera bat zozketatu genuen. Sari bereziak ematen dizkiegu mutikoak gustura egoteko.

- Mutikoak entrenatzen jarraitzeko asmoa duzu? -Entrenatzen jarraitzeko asmoa daukat. Edozertarako laguntza eskatzen badidate, ni beti prest. Esperientzia zoragarria da eta ahal dudan neurrian honekin jarraituko dut.

● Adina: 35.

- Zaletasunak? Futbola, pilota, mendia.
- Irabazi ala ondo jokatu? Adin honetan, batez ere, ondo jokatu.
- Urtarorik gustukoena? Denak.



**MAPFRE**  
 ASEGURUAK  
*Mari Luz Rojo*

Mota guztietako aseguruak zure esku


San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04

**KATIUSKA**  
 T a b e r n a

Errosario 28. Tel. 74 0038 ELGOIBAR



**URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA**



Aurtego berrikuntzarik nagusia taldeek txandaz txanda egin behar duten arbitraia da. Dagoeneko partidu asko jokatu dira eta antolatzaileen ustez emaitza onak ematen ari den eredia da honoko hau. “Gaurdaino ez da istilu nabarmenik izan” azaldu digute antolatzaileek. “Jokalariek ere gutxiago protestatzen dute egunen batean beraiek ere arbitro izan behar dutelako”. Hala ere, azken partiduetarako, hau da, finalerdi eta finalerako, partiduak epaituko dituzten beste lagun batzuen bila ari da antolakuntza, partidu horietan iskanbila arriskua areagotu egiten baita. Oraingoz, behintzat, txandakako eredu hau zorionekoa ari da gertatzen.

**SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA**

A Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. MIMOX	5	4	1	0	9
2. KOSAKOS	4	4	0	0	8
3. ARROAK	5	3	2	0	8
4. CHELSEA	5	4	0	1	8
5. KARKIS	5	3	1	1	7
6. LANBROA	4	1	2	1	4
7. BERROGEI DURO	5	2	0	3	4
8. HUNDE VERBOTEN	5	1	1	3	3
9. XIRULA	5	0	2	3	2
10. ORAIKO KAFE	5	1	0	4	2
11. PEDRUSCO	5	1	0	4	2
12. RESTO DEL MUNDO	5	0	1	4	1

B Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1.G. GARCIA	5	3	2	0	8
2. BAR ROKE	5	4	0	1	8
3. DINAMO KALIMOTXO	5	3	1	1	7
4. TXIRRISTAKA	5	2	2	1	6
5. KING-KONG	5	3	0	2	6
6. AMETSA	5	2	1	2	5
7. LUCKY LUKE	5	1	2	2	4
8. SPORTING	5	1	2	2	4
9. LAGUN TOKI	3	1	1	1	3
10. UNIV. DE CHILE	4	1	1	2	3
11.GORRI BELTZ	4	0	1	3	1
12. ALDAVAS	5	0	1	4	1

**GOLAK**

**TALDERIK GOLEGILEENA**  
Mimox (39 gol)  
Dinamo Kalimotxo (26 gol)  
Kosakos (24 gol)

**GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA**  
Mimox (3 gol)  
Karkis eta Garajes Garcia (6 gol)

**GOLEGILERIK ONENA**  
Mancebo (Mimox) 13 gol

**DATONEN PARTIDUAK**

\*\*\* ABENDUAK 12 \*\*\*

10:00 Gorri Beltz - Dinamo Kalimotxo      Ametsa - Bar Roke  
11:00 KingKong - Lagun Toki              Sporting - G. Garcia  
12:00 Txirristaka - Aldavas              Lucky Luke - Univ. de Chile

\*\*\* ABENDUAK 19 \*\*\*


10:00 Arroak - Resto del Mundo          Kosakos - Oraiko Kafe  
11:00 Karkis - Chelsea                      Berrogei Duro - Lanbroa  
12:00 Xirula - Mimox                        Hunde Verboten - Pedrusko

\*\*\* URTARRILAK 6 \*\*\*

10:00 G. Garcia - Lucky Luc              Aldavas - Ametsa  
11:00 Bar Roke - Sporting                  Dinamo Kalimotxo - King Kong  
12:00 Lagun Toki - Txirristaka              Univ de Chile - Gorri Beltz

\*\*\* URTARRILAK 9 \*\*\*

10:00 Arroak - Karkis                        Oraiko Kafe - Xirula  
11:00 Resto del Mundo - Pedrusko        Mimox - Berrogei Duro  
12:00 Lanbroa - Under Verboten          Chelsea - Kosakos



# Gurutze Gorria: Borondatezko lanean eredu

1984. urteko maiatzean sokorrismo ikastaro baten ondoren, 30 pertsonako talde batek Elgoibarko DYA sortu zuen. Lau urtez DYA bezala funtzionatu eta gero, Gurutze Gorriaren asanblada lokala eratu zen. Batean zein bestean lana antzerakoa da, 24 orduko borondatezko zerbitzua eskaintzea, alegia.



Elgoibarko Gurutze Gorriko hainbat kide. Borondatezko lanaren adierazgarri.

## Elgoibarko

Gurutze Gorriaren asanblada lokalak bi anbulantzia ditu: bata Eusko Jaurlaritzak emandakoa, berriena, eta bestea Udalak erositakoa. Biek dute mediku batek bertan lan egiteko adina aparatu, berria konpletuagoa bada ere. SOS Deiak erakundeak bidaltzen dizkien deiak jaso eta erantzuna ematen zaie. Gurutze Gorriak hartzen duen zonaldea, Eibarko irteeratik hasi, Plaentxi, Elgoibar eta Mendarora bitartekoa da.

Diru-sarrerei dagokierik, SOS Deiak-en eskutik milioi inguru pezeta jasotzen dute. Dena den, laguntza horrek ez du aurrekontua betetzeko adina ematen. Udalaren diru laguntza, kolaboratzaileen laguntzak, urrearen zozketa, errifak, kuestazioak eta

horrelako formulak dira beste diru sarrera garrantzitsuak.

Gurutze Gorriak egunean 24 orduko zerbitzua eskaintzen du. Asteazkenean zehar, ia egun osoko lanaldia duen liberatu batek sortzen diren larrialdiak jasotzen ditu. Gaueko txanda, boluntarioek egiten dute eta asteburuetarako errotazio sistemako txanda dute. Hile-

---

**Objetorek normalean urtebetea egin eta alde egiten dute baina badira epea bete ondoren lanean jarraitzen dutenak.**

---

an behin, boluntario bat, astebukaera osoan egoten da zerbitzua betetzen.

Boluntarioez gain, objetoreak ere badituzte. Normalean urtebetea egin eta alde egiten dute baina badira funtzionamendua ezagutu eta gero, beraiekin lanean jarraitzen dutenak. Objektoreek 35 orduko zerbitzua egin behar izaten dute astero.

Elkarteak bi motako bazkideak ditu: aktiboak, hau da, lan egiten dutenak eta kolaboratzaileak, dirua ematen dutenak. Larrialdiak gertatzen direnean, bazkideei deitu eta berehala erantzuten diotela deiari esan digute. Hala izan da behintzat Elgoibarren uholdeak eta antzeko hondamenak gertatu izan direnean. Larrialdi arruntak, berriz, 400etik gora izaten dituzte urtearen buruan. Ekainetik aurrera gehitu egin omen dira.

Gurutze Gorriaren

barruan hainbat atal eta zerbitzu daude: Zerbitzu sozialak (3. adinekoei laguntza: joan-etorriak direla, bazkariak direla, edota kalera irteten lagundu) elbarrituei laguntza, Zerbitzu prebentiboak (futbola, jaiak...), gazteria (joku ez konpetitzaileak bultzatzen dituzte), errefuxiatuei laguntza, etxean dauden 3. adinekoei atentzioa, Zaharren Egoitzakoekin txangoak...

### FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 19484

**Bazkide kopurua:** 52 (aktiboak)

**Presidentea:** Mila Picaza

**Larrialdi kopurua urteko:** 400tik gora

**Lokala:** Aita Agirre plaza



# Euli arteko doinuak



RIKO

→ Hiru urtetan egindako lanaren emaitza da Ehun kiloren lehen diska.

- **“Euli artian”, Ehun Kiloren lehen diska da. Esplikaiguzue nolakoa den diska.**

- Gure kontzertuen bilduma da, batez ere. Urteetan egin ditugun abestixak eta aspalditik zauzkagun melodiak sartu ditugu. Hiru urtetan egin dugun lana da. Hiru abesti daude berririk, diskarako egin ditugunak. Guztira 12 kantu dira, haue-tatik bat “Tango Feroz”, Napalm zenaren abestixa da. Abesti guztiak, “Tango” ezik, euskaraz dira. Gure ustez, gure abestixentzako egokixena euskara da. Gure merkatua Euskal Herrixan dago eta oraingoz ez dau-gagu irteteko asmorik.

“Tango Feroz” Jon Sotoren ome-nez sartu dugu diskan. Napalm-en egon zan gurekin eta orain dela lau urte hil zan. Abestixa politxa da, tipo “vacilon”.

- **Lehenago zer lan egin dituzue?**

- Maketa bat atera gendun, “Ehun Kilo” izenekoa, mila kopia egin genituen eta Deba bailaran banatu genuen. Danak saldu zian. Disketxe-koak maketia entzun zaben eta guk ere disko bat nahi gendun grabatu. Zorte ona euki gendun.

- **Diskak zer arrera izatea espero**

**duzue?**

- Ona. Komertzialki hitz eginez, igual ez oso ona baina Su Ta Gar EH Sukarra eta horien mailan jarriko gaituzte.

- **Koskaren ostetik, Ehun Kilo da diska bat grabatu duen herriko rock talde bakarra.**

- Gu hasi ginenean bazeuden Elgoibarren 17 talde edo. Mordua. Handik ez zan ezer irten. Ez dakit zergatik. Jendea afizio handiarekin hasten da baina gero, egunero loka-lean jo eta jo egon behar dela kontu-ratzen dira eta aspertu egiten dira. Beharbada Elgoibarren ez zegoen diska bat ateratzeko egin behar den lan guztia egiteko gogoia zeukan jen-

**Elgoibarko Ehun Kilo rock taldeak, bukatu berri den Durangoko azokan aurkeztu du bere lehen diska “Euli artian”. Urriaren bukaeran Elkar disketxean egin zuten grabazioa Jean Phocas teknikoaren zuzendaritzapean. Diska, berehala izango da kalean. Grabazioaz eta musikaz hitz egiten aritu gara Ehun Kiloko Jon Zabalarekin.**

derik. Diska bat ateratzea kristoren lana da. Hamazazpi talde haietatik lau talde geratu ziren, gero bi, bata Ereiel eta bestea Napalm. Napalm-etik Ehun Kilo sortu zen.

- **Zer diagnosi egingo zenuke gau-rregungo Elgoibarko musika mobidaz?**

- Jendeak kristoren afizioaz hartzen du asuntua. Hori ondo dago ze, kantitatetik aterako baita kalitatea. Guztien artetik bi edo hiru ateratzen badira, zeozer bada. Denborarekin etorriko da kalitatea.

- **Kantak eta letrak konposatzera-koan, inspirazio beharrik izaten duzue?**

- Letrak lagun egiten dizkigute. Gure letrak konpromenezuzkoak dira, nahiko flojo gabilta horretan. Kantak erritmoak lantzetik lortzen ditugu. Hortik musika zatiak ateratzen ditugu. Gure abestiak puzzleak bezalakoak dira.

- **Zergatik “Ehun Kilo”?**

- Ehun Metro liburua irakurri nuen eta titulu bezala asko gustatzen zitzaidan. Ehun Metro-tik Ehun Kilo atera zen, taldeko batek niri begiratu eta nire pisuari buruz adarra jotzen hasi zirenean.

## JAKITEKOAK:

**Musika mota: Euskal heavy-a**

**Sorrera urtea: 1990**

**Diskaren izenburua: “Euli artian”**

**TALDEA:**

**Ahotsa: Jon Zabala**

**Bateria: Kamilo Fernandez**

**Kitarrak: Jabi Bergara, Jon Iturrino**

**Baxua: Kristian Etxabe.**

# 10 Ostirala

22,15 ZINEA

"Huevos de oro"

Tokia: Udal Biltzar Aretoa  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba  
Zuzendaria: Bigas Luna  
Aktoreak: Javier Bardem, Mari-  
bel Verdu.

## Z I N E A

"Huevos de oro"

Benito, Melillan soldaduska egiten dago. Arraultzak txorizoarekin gustatzen zaizkio eta gauez bidetak osten ditu. Pelikulak Benitoren bizitza kontatzen du bere bizitzako neskalagunen bitartez. Melillan dagoela emaztegaia bere lagun onenarekin joango da. Gertaera honek betirako markatuko du Benito. Hemendik aurrera, bere ametsa, mendekua eta eraikuntza handi bat egitea izango dira.

## Z I N E A

# 11 Larunbata

10,00 AISIALDIKO EKINTZAK

Antolatzailea: Euskara Batzordea  
Tokia: Kultur Etxea

17,00 ZINEA

"Star Trek VI"

Haurrentzako sarrera: 150 pezeta.  
Tokia: Udal Biltzar Aretoa  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba  
Zuzendaria: Nicolas Meyer  
Aktoreak: William Shatner, Leonard Nimoy.

22,15 ZINEA

"Huevos de oro"

Tokia: Udal Biltzar Aretoa  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

# 12 Igandea

17,00 ZINEA

"Star Trek VI"

Haurrentzako sarrera: 150 pezeta.

19,30-22,15 ZINEA

"Huevos de oro"

# 13 Astelehena

08,00-10,30-12,30 ZINEA

"Heroe por accidente"

Antolatzailea: Irudi Biziak eta Udaleko Drogomenkotasunen Prebentziorako zerbitzua  
Hezkuntza ertaineko ikasleentzat

22,15 ZINEA

"Huevos de oro"

Tokia: Udal Biltzar Aretoa  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

# 14 Asteartea

14,45-16,15 YOGA IKASTAROA

Tokia: Kultur Etxea

# 15 Asteazkena

20,00 HITZALDIA

Hizlaria: Javier Orlando  
Gaia: Zergak (Moduloak)  
Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Txankakua

# 16 Osteguna

16,00-19,30 YOGA IKASTAROA

Tokia: Kultur Etxea

## Artegi LEHIAKETA

**ABENDUKO GALDERA:** Zein da gure aldizkarian gehien gustatzen zaizun atala? (Markatu gurutze batekin)

Komikia

Bertsotan

Lau hankatan

Besterik, Zein?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Abenduak 20an SONY telebista bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzuenon artean.

(Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

**Etxebizitzak**

Etxe bat saltzen dut Urasandin. 1. pisua. **Tel: 75 51 69**

**Lana**

Aizu etxeokandrea!, perfumaria apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek emakumezkoak behar ditu. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publikitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat. **Deitu arratsaldeko 7retatik aurrera 51 04 53 zenbakira.**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

**Salerosketak**

Garaje bat saltzen da. Bi kotxerentzat espazioa eta leku onean. Modu onian. **74 23 44 eguerdiko 12ak baino lehen.**

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai. Prezio egokia. **Tel.: 74 41 32 Fernando**

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da. **Tel.: 74 01 17**

Brother trikotosa bat saltzen dut. bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea. **Tel: 74 18 51**

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Alttiloa" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

**kontaktuak**

Hi, gazte!! Traban dauzkaken diska, zin eta konapaktoak, zarrak, berrixak, oinguk aeta lenguak jasotzen ditugu. Deitu arratsalde ZAZPIKira 74 34 74 edo bialdu 70 postakutxatilara. Mila esker.

Karitasek familia bati emateko butano txikidun estufa bat behar du. Inork emateko bezala balu, deitu. **74 15 09 / 74 12 57**

Karitasek erropak gordetzeko armario bat hartuko luke familia bati emateko. **74 15 09 / 74 12 57**

Untzon taberna istera doanez, bertan dagoen tresneria salgai jarriko dugu. Kamarak, Kafetera, Ontziak, kazuelak... Informazio gahiago nahi duenak dei dezala **74 00 35** Jesusa.

Idatzi zure testua eta bidali BARREnera



# KENSINGTON

**93-94 ikasturterako matrikulazio epea zabalik!**  
**Ingelesa eta frantsesaz gain,**  
**orain, eskaeren arabera ALEMANA ere bai.**


- ☛ Orain matrikulatzen direnak aurreko taldeetan sartzeko aukera izango dute.
- ☛ Urtarriletik aurrera TALDE BERRIAK, maila eta adin guztientzat.
- ☛ % 80ko asistentzia dutenek KENSINGTON AGIRIA jasoko dute.
- ☛ Enpresetan ere klaseak ematen ditugu

GIPUZKOAKO HIZKUNTZ IRAKASLE ELKARTEKO BAZKIDE


P. Muguruza 8. ELGOIBAR ☎ **74 02 36**



*15 urte zure zerbitzura*



**Edozein gorreri arazori irtenbidea emango dion audiometri gela.**



**Teknologia aurreratuenarekin Ikusmena graduatzeko gela.**